


AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO UDALA




TXOSTEN TEKNIKOA

SOINU-INGURUNEAREN HOBEKUNTZARAKO EKINTZA-PLANA. SIHEP IV. FASEA



Dokumentu zbkia: 240277
Data: 24.11.11
Orrialde zbkia, hau barne: 51



AAC CENTRO DE ACÚSTICA APLICADA
Ingeniería + Laboratorio

Leonardo da Vinci 14 – 7B
Parque Tecnológico de Álava
01510 Miñano; VITORIA-GASTEIZ
Tel.: (+34) 945 29 82 33

aac@aacacustica.com - www.aacacustica.com

ALDAKETEN KONTROLA

Berrikusketa	Data	Aldatzen duen dokumentua	Arrazoia	Egindako aldaketak

TXOSTEN TEKNIKOA

SOINU-INGURUNEAREN HOBEKUNTZARAKO EKINTZA-PLANA. SIHEP IV. FASEA

esp.: 24048

dok.:240277

JGC / MTG/ ABI

data: 24.11.11

Bezeroa: **DONOSTIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN**
Ijentea kalea, 1
20003 Donostia/San Sebastián (GIPUZKOA)

Nork eskatua: Osasun eta Ingurumen-Saila

Vitoria-Gasteiz, goiburuko data

VºBº



Alberto Bañuelos Irusta

AAC Centro de Acústica Aplicada S.L.

Mónica Tomás Garrido

Aurkibidea

1.	XEDEA	5
2.	EKINTZA-PLANAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK	6
3.	AGINTARITZA ARDURADUNA	7
4.	AGLOMERAZIOAREN DESKRIBAPEN LABURRA	8
5.	EREMU LASAIK.....	10
6.	ZARATA MURRIZTEKO HELBURUAK	13
7.	KONTUAN HARTU BEHARREKO ZARATA-BALIOAK.....	15
8.	IRAGANEAN ZARATARI AURRE EGITEKO EGIN DIREN PLAN ETA PROGRAMAK ETA INDARREAN MANTENTZEN DIREN NEURRIAK.....	19
9.	ZME-AREN EMAITZEN LABURPENA. ZUZENDU BEHARREKO OINARRIZKO ARAZO ETA EGOERAK 20	
9.1	Kontuan hartutako zarata-iturriak	20
9.2	Zaratarekiko esposiziopean dagoen biztanleria. Kaltetutako biztanleriaren analisi.....	20
9.2.1	<i>Aldez aurreko kontsiderazioak.....</i>	20
9.2.2	<i>Europako adierazleengatik kaltetutako pertsonak: $L_{den} \geq 55dB$ y $L_n \geq 50dB$.....</i>	21
9.2.3	<i>Beste adierazle batzuegatik kaltetutako pertsonak.....</i>	22
9.3	Identifikatutako arazoaren deskribapena eta hobetu beharreko egoerak.....	25
9.3.1	<i>Gatazka-guneen identifikazioa</i>	25
9.3.2	<i>Eremu lasaien identifikazioa</i>	27
10.	JENDAURREKO INFORMAZIO-PROZESUAREN LABURPENA	29
11.	INDARREAN EDO PRESTAKETA-FASEAN DAUDEN ZARATA KUDEATZEKO NEURRIAK ETA JARDUKETA-PLANEAN AGINTARITZA ESKUDUNEK HURRENGO BOST URTEETAN GAUZATU NAHI DITUZTEN JARDUKETEN DESKRIBAPENA Estrategia a largo plazo	29
11.2	Datozen bost urteetarako aurreikusitako jarduerak	31
11.2.1	<i>Kudeaketa-lerroak</i>	32
11.2.2	<i>Jarduketa-lerroak</i>	37
11.2.3	<i>Lehentasunezko ekintzak</i>	44
11.2.4	<i>Kostuen laburpena</i>	45
11.2.5	<i>Ezari beharreko neurri zuzentzaile zehatzak</i>	45
11.2.6	<i>Babes Akustiko Bereziaren Eremuak</i>	46
12.	PLANAREN EZARPENAREN ETA EMAITZEN JARRAIPENA EGITEKO PROPOSATUTAKO ADIERAZLEEN LABURPENA	51

1. XEDEA

Agiri honetan Donostia/San Sebastian udalerriko 2024ko Zarataren aurkako Ekintza Plana (ZEP) aurkeztu da. Hurrengo bost urteetan egongo da indarrean eta 2022ko Zarataren aurkako Mapa Estrategikoko emaitzetatik abiatuta sortu da, Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko legeriari erantzute aldera.

Ingurune-zaratari buruzko esparru juridikoaren erreferentzia Zuzentarau hau da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/49/CE Zuzentaraua, 2002ko ekainaren 25ekoa, Ingurune-zarataren kudeaketari eta ebaluazioari buruzkoa (Ingurune-zarataren Zuzentaraua). Zuzentarau hori estatuko araudian sartu zen Zarataren azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta aurrekoa garatzen duen abenduaren 16ko 1513/2005 Errege Dekretuan, ingurune-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokienez.

Zarataren 37/2003 Legea osorik garatu zen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretua, zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez onetsi eta gero.

Euskal Autonomia Erkidegoan ingurune-zarataren arloan aplikatu beharreko araudiaren artean dago 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa. Bertan, ekintza-planen osagarri diren zenbait baldintzatzaille ezartzen dira. Horrenbestez, agiri honek Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko legeriak ekintza planetarako ezartzen dituzten baldintzei erantzuten die.

Egungo ekintza-plana Europar Batasunak ezarritako egutegiaren barnean dago. Egutegi horretan Europako zarata-ebaluazioaren laugarren fasea ezartzen da eta, horretarako, zarataren mapa estrategikoak eta 100.000 biztanle baino gehiagoko aglomerazioen ekintza planak idatzi behar dira.

Bilboko Udalak, Europako eta estatuko legeria aplikatuz, 2018an idatzi zuen azken ekintza-plana. Plan hori, Zarataren aurkako Mapa Estrategikoekin (ZME) eta ebaluazio osagarriekin batera, erreferentzia gisa erabili da ekintza-plan berria idazteko. Hala, ekintza-plan hau 2022ko ZMEren emaitzak abiapuntutzat hartuta planteatu da eta hurrengo bost urteetan egongo da indarrean: Hau da, 2024-2029 urteetan.

Biztanle kopurua dela eta, Donostia/San Sebastianeko Udala Zarata Mapa Estrategiko bidezko ebaluazioa egitera behartuta egon da, 2. ,3. eta 4.faseetan, 2012an,2017an eta 2022an, hurrenez hurren. Horretaz gain, Europako eta estatuko legeria aplikatuz, 2018an idatzi zuen azken ekintza-plana. Plan hori, Zarataren aurkako Mapa Estrategikoekin (ZME) eta ebaluazio osagarriekin batera, erreferentzia gisa erabili da ekintza-plan berria idazteko. Hala, ekintza-plan hau 2022ko ZMEren emaitzak abiapuntutzat hartuta planteatu da eta hurrengo bost urteetan egongo da indarrean: Hau da, 2024-2029 urteetan.

2. Ekintza-Planaren Identifikazio-Datuak

Ekintza-Planaren izenburua		Soinu-Ingurunearen Hobekuntzarako Ekintza-Plana (SIHEP IV. Fasea)	
Identifikatzaile bakarra		AP_AG_ES_21_20069	
Ekintza-Planaren estaldura-zonaren identifikatzaile bakarra			
Ekintza-Planaren data garrantzitsuak	Informazio publikorako data	Hasiera	
		Bukaera	
	Onarpen-data		
	Ekintza-Planaren ezarpenaren hasiera- eta bukaera-datak	Hasiera	18/07/2024
Bukaera		18/07/2029	

3. AGINTARITZA ARDURADUNA

Soinu-Ingurunearen Hobekuntzarako Ekintza-Plana (SIHEP IV. Fasea) egitearen agintaritza arduraduna Donostiako Udala da, Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzaren bidez garatu duena, bertako zuzendaria izanik Ekintza-Plana landu behar duen horrek, bere harreman-informazioa hurrengo delarik: ingurumena@donostia.eus.

Ekintza-Planaren garapenerako AAC Centro de Acústica Aplicada S.L. enpresaren laguntza eta parte-hartzea izan da.

Hala ere, udalerrian udal-eskumenekoak ez diren zarata-fokuak badaude, beraz, foku horietan eskudunak diren administrazioen parte-hartzea beharrezkoa izango da. Hurrengoak dira:

- Errepideak: Gipuzkoako Foru Aldundia
- Trenbidea: Garraio- eta Mugikortasun Jasangarrirako Saila / ADIF eta Eusko Jaurlaritza / ETS (Euskal Trenbide Sarea)

4. AGLOMERAZIOAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Donostia/San Sebastián Gipuzkoa-kostako ipar-ekialdeko udalerrri bat da, Kantauriar itsasoaren ertzean eta Frantziatik 20 km eskasetara. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hiriburua izanda, 60,89 km²-ko azalera hartzen du. Bere muga geografikoak hurrengo hauek dira:

- Iparraldean Kantauriar itsasoarekin mugatzen du
- Hegoaldean, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Hernaniko udalerriekin
- Ekialdean, Pasaia eta Errenteriako udalerriekin
- Mendebaldean, Orio eta Usurbilgo udalerriekin

Hurrengo irudian hiriaren mugaketa geografikoa erakusten da:



Donostiako udalerriko mugaketa

Donostiako udalerria hurrengo auzoek osatzen dute: Altza, Amara, Añorga, Ategorrieta- Ulia, Aiete, Centro, Egia, Antiguo, Gros, Ibaeta, Igeldo, Intxaurren, Loiola, Martutene, Miracruz-Bidebieta, Miramon eta, hirigunetik urrunago, Zubieta eta Landarbaso. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, udalerraren historiaren momentu ezberdinetan garatu baitziren.


2022. urtean, Donostiako guztizko biztanleria 188.743 pertsonakoa izan zen.

Trafiko-azpiegitura garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Errepideak: AP-8 (Kantauriko Autobidea), GI-20 (Donostiako Saihesbidea), GI-11 (N-I eta GI-20 arteko lotura), GI-41, GI-636, GI-2640, GI-2132, GI-2137, GI-3401 eta AP-1 (Donostiako bigarren ingurabidea); bide-ardatz nagusi gisa definitzen direnak, guzti hauek 8.000 ibilgailu/eguneko batez besteko intentsitatea gainditzen baitute (3.000.000 zirkulazio/urtero).

- Trenbide-trafikoa: ADIF eta ETS-ek kudeatutako lineak, trenbide-ardatz nagusizat ere jotzen direnak, urtero 30.000 zirkulazioak gainditzeagatik.

Donostiako aglomerazopa, 1513/2003 ED-aren VII. Eranskinak ezarritakoaren arabera mugatuta dagoena, 15,13km²-ko azalera hartzen du, zeinak Aiete, Amara Berri, Centro, Egia eta Gros-eko auzoak guztiz barneratzen dituen, eta Altza, Antiguoa, Ategorrieta-Ulía, Ibaeta, Intxaurrondo, Loiola eta Mirakruz-Bidebieta auzoak, berriz, soilik partzialki. Hurrengo irudian mugaketa hau erakusten da:



Donostiako aglomerazioko mugaketa

Dokumentu honek erkidegoko eta estatuko legeriari erantzuna eman nahi dio, zeinek aglomeraziorako Ekintza-Plana eskatzen duen, bai eta autonomia-erkidegoko legediari ere, zeinean Ekintza-Plana udalerriri osoari egokitzen zaion.

Hori dela eta, Ekintza-Plana Donostiako udalerriri osoari egiten dio erreferentzia, baina kaltetutako biztanleriari buruzko informazioa bi maialetan bereiziko da: udalerrira eta aglomerazioa, bere interesaren arabera.

5. EREMU LASAIAK

Bai Europako legediak, bai estatuko eta autonomi-erkidegoko legediak ere, ekintza-plan baten helburu garrantzitsuenen artean eremu lasaiak babestea jasotzen dute. Hori dela eta, beharrezkoa da bertan helburu hau betetzeko ekintza-lerro bat gehitzea.

Eremu lasaia zer den definitzeko, legediak figura ezberdinak ezartzen ditu, bakoitzaren definizioa kontuan hartutako legediaren arabera izango delarik. Jarraian, legediak eremu lasaien inguruan barne hartzen dituen figurak aurkezten dira:

- 213/2012 Dekretua (legedi autonomikoa)

Hiriko Eremu Lasaiak (HEL): a) edo e) motako eremu akustikoko esparrua, bere kalitate akustikoko helburuak betetzen dituen eta bere ezaugarri edo erabilerarengatik hots-kutsaduraren aurreko babes gehiago behar duena.

Gainera, eremu lasaiak Dekretu honen I. eranskineko 1. atalaren A taulan zonifikazio akustikoaren inguruan aurreikusitako kalitate-helburuak baino 5 dB(A) gutxiago aurkeztuko dituzte, gutxienez. Nolanahi ere, kalitate-helburu hauek eremu bakoitzaren garapen jasangarriarekin bateragarria den soinu-kalitate hobereana babestu beharko dute.

g) eremuak: Honako hauek joko dira g) motako eremutzat: Euskal Autonomia Erkidegoko natura-guneen zerrendan jasotako lurralde-eremu edo -sektoreetatik legeen arabera babestu behar diren elementu naturalak dituzten horiek; natura-guneak; eta zarataren kontrako babes bereziaren beharra duten eremuak, betiere, ingurumenaz arduratzen den Autonomia Erkidegoko erakundeak halakotzat jo baditu.

Hala eta guztiz ere, udalek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari eska diezaioke udalerriko geografia-eremuaren barruko lurzoru ez-urbanizagarri bat g) motako eremu akustikotzat jotzeko, eremu horrek zarataren aurreko babes berezia bejar badu eta eskera hori argudiatzen duten ebaluazio eta irizpen nahikoak badaude.

- 37/2003 Legea y 1513/2005 ED, 1367/2007 ED (Estatuko legedia)

Eremu lasaiak aglomerazioetan: Gobernuak finkatu beharreko indize akustiko jakin baten balioa gainditzen ez duten eremuak.

Eremu lasaiak lur zabalean: trafikoak, industria-jarduerak edo kirol- eta jolas-jarduerak eragindako zaratagatik ez asaldatutako eremuak.

Horrez gain, aglomerazioetako eta lur zabaleko eremu lasaien kalitate-helburuak finkatzeko, II. Eranskineko A taulan ezarritako immisio-indizeen balioak, gutxienez 5 dB(A)-

etan murriztuta, mantentzea ezartzen da, garapen jasangarriarekin bateragarria den kalitate-akustiko hobereana mantentzen saiatuz.

Definizio hauetan oinarrituta, Donostiako Ekintza-Planean kontuan hartu beharreko hurrengo eremu lasai-motak ezberdindu daitezke:

- **HIRIKO EREMU LASAIK (HEL):** a) bizitegi-motako eta/edo e) irakaskuntza-, osasun- edo kultura-motako eremu akustikoak, non eremu lasaien zarata-mailak betetzen diren, hau da, $L_{d/e}=60$ dB(A) eta $L_n=50$ dB(A) a) motarako; $L_{d/e}=55$ dB(A) eta $L_n=45$ dB(A) e) motarako. Bizitegi-eremuetan, a) mota; HEL-ak ezarri ahalko dira bai bizitegi-eraikinak dituzten eremuetan, bai eremu publikoetan ere, HEL-etako zarata-mailak betetzen direnean. HEL-en ezaugarriak bere babes-plana baldintzatuko dute. Kalitate-Akustikoko Helburuak (KAH) gainditzen ez diren bitartean, HEL-aren ehuneko murriz batek HEL-en helburuak ez betetzea onartuko da.
- **213/2012 Dekretuaren arabeko G) EREMUAK;** g) motako eremuetako kalitate akustikoko helburuak baino 5 dB(A) gutxiagoko mailak, hau da, $L_{d/e}=55$ dB(A) eta $L_n=45$ dB(A), betetzen dituztenean, hurrengo eremuetan ezarri ahalko da figura hau:
 - **Natura-guneak;** Autonomia-Erkidegoaren ingurumen-organoak honela deklaraturako eremuak.
 - **Lur zabaleko bestelako eremu lasaiak:** natura-guneak ez diren baina zarataren aurkako babes berezia behar duten eremuak.


Gehigarri gisa, zarataren pertzepzioa soinu-mailari soilik lotuta ez dagoenez, modu kualitatibo batean lasaitzat har daitezkeen beste eremu batzuk kontuan hartzen dira. Horregatik, aurretik definitutako eremu lasaiekin bat egin dezaketen edo ez hurrengo aukerak ere aztertzen dira:

- **Hiriko soinu-oasia:** bizitegi-erabilera eremua, a) mota, biztanleriaren arabera ongizate akustikoa gehitzen duen akustikoki atsegina den eta kutsadura akustikoaren esposizioarekiko efektu zuzentzaileari laguntzen dion erabilera publikoko eremuak barne. Hauen aitortpenerako beharrezkoa izango da soinu-ingurunearekiko biztanleriaren pertzepzioaren ebaluazio bat egitea, zehazki helburu honetara orientatuta dagoena. Ez dago soinu-maila zehatz batzuetara lotuta, eta horregatik bat egin dezakete, edo ez, HEL batekin.
- **Jatorri Naturaleko Soinuen Erreserbak (KAEL-JNSE):** Legedi autonomikoaren arabera: g) motako eremuen barnean definitutako espazioak dira, zeinen soinuak kutsadura akustikotik babestu behar diren, bai hauen balio natural edo kulturalagatik, bai beste soinu-iturrien aurrean duten garbitasunagatik ere. Beraz, ez daude lotuta jada dauden zarata-mailekin, baizik eta kalitate-akustikoko helburuak Autonomia Erkidegoaren

ingurumen-organoak ezarritakoak izango direla, eremu horietan kutsadura akustikoaren aurrean beharrezkoa den babesarekin bat etor daitezten.

Natura-guneak eta hirigunetik kanpoko eremu lasaiak identifikatu dira, baina ez dira oraindik hiriko eremu lasairik deklaratu. Babes-planak ere ez dira jorratu, beraz, 2024ko Ekintza-Planaren helburua eremu lasaiak mugatu eta deklaratzera izango da, bai hirigunean eta bai hirigunetik kanpo ere, hauen babes-planak onartzearekin batera.

Modu honetan, eguneratutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO 2010) hirigintza-antolamendua baldintzen planoarekin gainezarriz, eta zonifikazio akustikoa kontuan hartuz, hurrengo irudian identifikatzen dira natura-gune lasaiak, hau da, hirigunetik kanpoko eremuak.



Natura-Gune Lasaiak – Iturria: eguneratutako HAPO 2010

6. ZARATA MURRIZTEKO HELBURUAK

Ekintza-Plana Donostiako Udalarari aplikatzen zaizkion Europako, Estatuko eta Autonomia-Erkidegoko legediaren eskakizunen barruan dago, ezarritako helburuak lortzeko kudeaketaren hobekuntza bilatuz.

Legediak (37/2003 Legea, zaratakoa) ekintza-planetarako deskribatzen dituen helburuak hurrengo hauek dira:

- a) Dagokion eremu akustiko edo akustikoetan kutsadura akustikoari dagozkion gaiei modu globalean aurre egitea.
- b) Emisio- edo immisio-mailen muga-balioak gainditzen diren edo kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren kasu horietarako lehentasunezko ekintzak zehaztea.
- c) Kutsadura akustikoaren handiagotzearen kontra aglomerazio barneko eta lur zabaleko eremu lasaiak babestea.

Helburu hauek jada aurreko ekintza-planetan sartuta daude, eta aurtengoko planean ere bete behar dira hurrengo 5 urteetarako. Helburu hauek betetzeko, beharrezkoa da planak jakintza-arlo anitzeko antolamendu bat mantentzea, zarata zeharkako izaera argia duen aldagai bat baita, udal-arlo ezberdinekin harreman zuzena duelako eta administrazio eta fokuen kudeatzaile ezberdinak inplikatzeko dituelako. Hori dela eta, Ekintza-Planean sartuta dauden parte guztien ekintzen koordinazioa garrantzitsua da, parte bakoitzaren eskumenen arabera izango dena.

2022ko ZME-ren emaitzak ikusita, helburuen gaintetiko afekzio garrantzitsu bat erakusten dutela kontuan hartuta, 2024ko Ekintza-Planaren lehentasuna afekzio hori murriztea izango da. Hala ere, OME (Osasunaren Mundu Erandundea)-ren gomendioak ere kontuan hartu behar dira, helburu askoz zorrotzagoak ezartzen dituztenak, bide-trafikorako $L_n = 45$ dB(A)-ko mailak gomendatzen baitituzte, legedian bizitegi-eremuetarako helburua $L_n = 55$ dB(A) den bitartean. Egoera honek epe ertain eta luzerako helburu handiagoak ezartzera behartzen du. Zentzu honetan, bizitegi-eremu lasaietarako legediak ezartzen duen helburua, $L_n = 50$ dB(A), aukera errealista bat izan daiteke, jada "etorkizuneko hirigintza-garapeneko" (213/2012 Dekretua) eremuetan aplikatzen den helburua delarik, balio gehigarria ematen diona.

Modu honetan, 2024ko Ekintza-Planaren helburua zaratarekiko esposizioa murriztea izango da, balorazio-erreferentzia berriak erantsiz, hiri lasai eta osasuntsu baten lorpenean aurrera egiteko. Horretarako, 2024ko Ekintza-Planaren helburu orokor moduan hurrengoak finkatzen dira:

- 2022ko ZME-ren ebaluazioarekiko trafikoagatik KAH-en gaintetik, $L_n > 55$ dB(A), kaltetutako biztanleria %30 baino gehiago murriztu, Europako Ingurumen Agentziak 2030. urterako ezarritakoarekin bat eginez.
- Biztanleriaren %70ak baino gehiago eremu lasaien zarata-mailak ($L_n \leq 50$ dB(A)) izatea lortu.

- 2022ko ZME-rekiko osasun adierazle ezberdinengatik kaltetutako biztanleria %20 batean murriztu.

7. KONTUAN HARTU BEHARREKO ZARATA-BALIOAK

Zarata-Maparen garapenerako (eta honi dagozkion gatazka-mapak) eta, beraz, Donostiako udalerriko egoera akustikoari buruzko ondorioak lortzeko, erreferentzia-balioak Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH) izan dira.

Ingurumen-zaratarako ezartzen diren KAH hauek urteko batez besteko maila-akustikoei egiten diote erreferentzia, eguneko hurrengo aldietarako: eguna (7:00-19:00), arratsaldea (19:00-23:00) eta gaua (23:00-7:00).

Estatuko araudian, kalitate akustikoko helburuak 1367/2007 Errege Dekretuaren (1038/2012 Errege Dekretuak, Uztailak 6koa, aldatzen duena) II. Eranskinean "Kalitate Akustikoko Helburuak" definitzen dira, eta sentsibilitate akustikoaren eremuaren arabera ezartzen dira:

1367/2007 ED. II. Eranskina. A Taula. Zaratarako Kalitate Akustikoko Helburuak izatedun eremu urbanizatuetarako aplikagarriak.

AREA AKUSTIKO MOTA		Zarataren adierazleak		
		L_d	L_e	L_n
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzorua nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar duten lurralde-sektoreak	60	60	50
a	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak	65	65	55
d	c) atalean jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak	70	70	65
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak	73	73	63
b	Industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak	75	75	65
f	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde-sektoreak (1)	(2)	(2)	(2)

4m-ko altueran erreferentziatutako Kalitate Akaustikoko Helburuak.

(1) Lurralde-sektore hauetan kutsadura-akustikoaren prebentziorako neurri egokiak hartuko dira, zehazki, eskuragarri dauden teknologia hoberen artean eragin akustiko txikiena duten horien erabileraren bidez, 37/2003 Legearen, azaroaren 17koa, 18.2 artikulua a) atalak ezarritakoaren arabera.

(2) Lurralde-sektore hauen muga ez dira hauekin mugakideak diren gainontzeko eremu-akustikoetan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak gaitutuko.

Maila autonomikoan, kalitate akustikoko helburuak 213/2012 Dekretuaren, urriaren 16koa, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoa, I. Eranskinean daude eta, aurreko taularen balioak mantenduz, hurrengo gehitzen du: kanpoaldean aplikatutako KAH-ak 2 metroko altueran daude erreferentziatuak, eta leihoak dituzten fatxaden kanpoaldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan. Honek altuera guztiko fatxaden ebaluazio bat gehitzea eskatzen du, Donostiako aurreko ZME-etan kontuan hartu dena.

213/2012 Dekretua. I: Eranskina. A Taula. Dauden eremu urbanizatuetarako zaraten kalitate akustikoko helburu aplikagarriak.

EREMU AKUSTIKO MOTA		Zaraten adierazleak		
		L_d	L_e	L_n
e	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzoruak nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar duten lurralde-esparru edo -sektoreak	60	60	50
a	Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	65	65	55
d	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	70	70	65
c	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
b	Industria-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo -sektoreak	75	75	65
f	Garraio-azpiegiturako sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurralde-esparru edo -sektoreak	(1)	(1)	(1)

Oharra:


- Kanpoaldean aplika daitezkeen kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko altuerara neurtuko dira; leihodun fatxaden kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.
 - 10. artikuluko 1 eta 2 paragrafoek aipatzen dituzten zarata-mapak egiteari dagokionez, ebaluazio akustikoa taula honetarako balioak aintzat hartuta egingo da, baina lurretik erreferentzia gisa 4 metroko altuera hartuta.
- (1) Beren eremuaren muga, mugakide dituen eremuen zonifikazio motari dagozkionak izango dira.

Bi kasuetan kalitate-helburuak urteko batez besteko neurrietarako ezartzen dira, baina eguneroko balio guztien %97ak aurreko taulen balioak 3 dB(A)-tan ez gainditzea ezartzen da ere.

Bi legediek eremu lasaietan aplikatzeko kalitate akustikoko helburua ezartzen dute: aurreko tauletan ezarritako immisio-adierazleen balioak baino, gutxienez, 5 dezibelio gutxiagoko soinu-mailak mantentzea, garapen jasangarriarekin bateragarria den kalitate akustiko hoberena mantentzen saiatuz.

“Hirigintza-garapen berrien” (1367/2007 ED) eta “etorkizuneko hirigintza-garapenen” (213/2012 Dekretua) kasuan, dauden eremu urbanizatuen kalitate-helburuak baino 5 dB(A)-etan zorrotzagoak izango dira, kanpoalderako.

Halaber, kalitate akustikoko helburuak udalerriko lurraldera zonifikazio-akustikoaren bidez esleitzen direla aipatu beharra dago, zonifikazio hori hurrengo irudian erakusten delarik:



Donostiako Udalerriko zonifikazio akustikoa

Hurrengo taulan egunekoaldi ezberdinetarako udalerrian dauden eremu akustikoen muga-akustikoak aurkezten dira:

EREMU MOTA	EREMU AKUSTIKOA	KALITATE-HELBURUAK	
		L_d / L_e (dB(A))	L_n (dB(A))
A	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak.	65	55
A etorkizunera	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak. Garapen berria.	60	50
B	Industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak.	75	65
B etorkizunera	Industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak. Garapen berria.	70	60
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak.	73	63
C etorkizunera	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak. Garapen berria.	68	58
E	Irakaskuntza- edo osasun-erabilerako lurzorua nagusi diren lurralde-sektoreak.	60	50
F	Azpiegiturak	*	*

(*): Bere eremuaren muga mugakideak diren eremuaren zonifikazio-tipologiari dagozkionak izango dira.

KAH-en betetzean aurrera egiteaz gain, hobekuntzarako helburu gehigarri gisa, 2024ko Ekintza-Planak eremu lasaien mailetan ($L_n \leq 50$ dB(A)) bizi den biztanleria handitzeko ahalegina egiten ari da, epe luzera OME-ren gomendioa lortzeko asmoz, hau da: $L_n \leq 45$ dB(A) bide-trafikoko zaratarako. Zentzu honetan, Europako zehaztapenekin bat eginez, 2024ko Ekintza-Planean beharrezkoa izango da Hiriko Eremu Lasaien (HEL) mugaketari ekitea.

Gainera, bi legedietan zaratarekiko sentikorrek diren eraikinen barneko eremurako kalitate akustikoko helburu berdinak ezartzen dira, eraikinaren erabilera eta esparru-motaren arabera.

B Taula. Etxebizitza-, bizitegi-, osasun-, hezkuntza- edo kultura-erabileretara bideratutako eraikinen barruko aldeko esparru bizigarriari aplikatzeko zarataren kalitate akustikoko helburuak.

Eraikinaren erabilera	Esparru-mota	Zarataren adierazleak		
		L_d dB(A)	L_e dB(A)	L_n dB(A)
Etxebizitzak edo bizitegi-erabilera	Gelak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Ospitale-erabilera	Egonlekuak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	40	40	40
	Irakurketa-gelak	35	35	35

Bestetik, Donostiako Zarata eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udalaren jokabidea arautzen duen ordenantzak jarduerak, ekipoak eta instalazioak bete behar dituzten muga-balio batzuk barne hartzen ditu, araudi autonomikoan ezarritakoak osatzen dituztenak.

8. IRAGANEAN ZARATARI AURRE EGITEKO EGIN DIREN PLAN ETA PROGRAMAK ETA INDARREAN MANTENTZEN DIREN NEURRIAK

Azken ZME-an egindako lana eta Ekintza-Plan honetarako antolaketa 2019-2023 Ekintza-Planean proposatutako neurrien betetze-maila baloratzea ahalbidetu dute.

Aurreko Ekintza-Planean hurrengo helburu kuantitatiboa ezarri zen: bizitegi-lurzoruetarako KAH-en ($L_n = 55$ dB(A)) gaineko biztanleria murriztea 2022ko ZME-rako, 2017ko ZME-ren %8tik (ILGR adierazlearekin ebaluatuta) %5era. Asmo handiko helburu hau ez betetzeaz gain, kaltetutako biztanleria handitu egin da, baina kontuan hartu behar da 2022ko ZME-ko ebaluazioan kalkulu-metodoaren aldaketak partzialki eragina izan duela emaitza hauetan, nahiz eta eragin hau kuantifikatzea zaila izan. Hala eta guztiz ere, 2024ko Ekintza-Planaren hobekuntza-prozesurako erreferentzia berri bat ezartzen du.

Hurrengo taulan helburu honen betetze-maila aztertzen da:

Helburua	2017 ZBE Emaita	2022 ZBE Aurreikuspena	2022 ZBE Emaita
Bizitegi-eremuetarako KAH-ak ($L_n > 55$ dB(A)) gainditzen dituen biztanleria, ILGR adierazlearekin ebaluatuta	%8	< %5	%12

Aurreko Ekintza-Planaren 5 urteko iraunaldian datu hauek lortu izan arren, Donostiako Udalak hirian afekzio-akustikoa murrizteko helburu, zuzena nahiz zeharkakoa, izan duten ekintzak burutu ditu. Nabarienak hurrengoak izan dira:

- Trafikoa eta mugikortasunari buruzko ekintzak: Azken bost urteetan bidegorrien kilometroak ugaritu dira, hiriaren kale askotan abiadura 30 km/h-tara murriztu da, hiribusetan aldaketak egon dira...
- Isuri Gutxiko Eremuaren onarpena.
- Donostialdeko Metroa: linea berria, lurperatzeak, erdialdera doan trafikoaren murrizketa martxan jartzen denean.
- Lurpeko Atotxa estazio berriaren eraikuntza.
- Hiribus elektrikoen flotaren handiagotzea.
- Aisialdi-Zarataren Mapa, oraindik egiten ari dena.
- Aisialdi buruzko sentsibilizazio-kanpainak.
- Hiri mantentze eta zerbitzuen zuzendaritzarekin batera lan egin makinak elektrikoak eta isilagoak diren beste batzuekin berrizteko.
- ADIF-ekin batera lan egin udalerrian pantaila-akustikoak instalatzeko.
- Turismo-gidariak soinu-anplifikazioko aparatuek eraman ez dezaten arautu.

- Antolatutako talde turistikoak gehienez 25 pertsonetara
- Goe-BCC obrek eragindako zarata-emisioen kontrola kudeatu.
- BioDonostia eta EHU-UPV-rekin parte hartu, Osasunaren Ingurumen-Determinatzaileen ikerketa-proiektuaren garapenerako datuaz hornituz: Zentro anitzeko Biztanleriaren Osasunari buruzko Inkesten bidezko proiektua (DAS-EP proiektua).

9. ZME-AREN EMAITZEN LABURPENA. ZUZENDU BEHARREKO OINARRIZKO ARAZO ETA EGOERAK

9.1 Kontuan hartutako zarata-iturriak

Zarata-Mapa Estrategiko (ZME) batek aztertu nahi diren ingurumeneko zarata-foku(ar)en 4 metroko altuerara neurtutako immisio-mailak irudikatzen ditu. Horrez gain, eraikinen fatxada-mailak ere kalkulatu egin dira, 4 metrotara bai eta altuera guztietara ere ebaluatu direlarik. Maila hauek urteko batez besteko maila-akustikoak adierazten dituzte, ebaluazio aldi ezberdinetarako: eguna (7:00-19:00), arratsaldea (19:00-23:00), gaua (23:00-7:00) eta egun osoa.

ZME-a, zarata-mapa eta fatxaden-mailak hurrengo mapa partzialek osatzen dituzte:

- Bide-trafikoa, hurrengo fokuak barne-hartzen dituenak:
 - *Kaleen trafikoa*: Donostiako udalerriko kaleen afekzio-akustikoa biltzen duenak.
 - *Errepideen trafikoa*: udalerrria zeharkatu edo honen inguruan dauden errepideek eragindako afekzio-akustikoa biltzen duenak.
- Trenbide-trafikoa, ADIF eta ETS-ren trenbideen lineak eragindako afekzio-akustikoa duenak, bai bidaiarien eta bai merkantzia-trenak ere kontuan hartuta.
- Industria, industrialdeetan identifikatutako zarata-fokuak biltzen dituenak.
- Guztizko Ingurumen-Zarata, ingurumen-zarataren foku guztiak batera kontuan hartuta, udalerriak jasandako afekzio-akustikoa irudikatzen du.

Foku bakoitzak eragindako afekzio-akustikoa bereiztearen erabilgarritasuna zarata-mailak bere jatorriarekin lotzean datza, horren ostean maila globaletan eragin handien duen zarata-fokuarengan neurri zuzentzaileak edo konponbideak aplikatu ahal izateko.

9.2 Zaratarekiko esposiziopean dagoen biztanleria. Kaltetutako biztanleriaren analisia.

9.2.1 Aldez aurreko kontsiderazioak

Analisi hau ZME-aren fatxada-mailen emaitzetatik abiatuta egiten da. PCM/80/2022 Aginduan (CNOSSOS-EU metodoa) definitutako metodoa da erabili beharrekoa Europako eskakizunei erantzuteko, aurreko ZME-arekiko aldatzen delarik, zeinetan VBEB metodoa erabili zen. Beraz,

hiriaren zarataren eboluzioa aztertu ahal izateko, metodo honekin ere kalkulatu egin da bai 4 metroetara, bai altuera guztietara ere kaltetutako biztanleria.

Jarrian, errezeptore bakoitzera etxebizitzak eta biztanleak esleitzeko erabilitako bi metodoak deskribatzen dira:

- CNOSSOS-EU metodoa (ZME IV. Fasea):

Eraikin bakoitzari lotutako errezeptoreen kokapena eraikin bakoitzean kalkulaturako ebaluazio-mailen medianaren arabera bi eremutan banatzen da: eraikinaren goiko erdia eta beheko erdia.

Eraikin bakoitzari lotutako guztizko etxebizitza- eta biztanle-kopurua uniformeki banatzen dira eraikinaren goiko erdian kokaturako errezeptoreetan, eta beheko erdiko errezeptoreei, aldiz, ez zaie balorerik esleitzen.

Hau da CNOSSOS-EU-k kaltetutako biztanleria kalkulatzeko ezartzen duen metodoa, Europak eskatzen duen kaltetutako biztanleriaren estatistikak lortzeko metodoa izanik.

- VBEB metodoa (ZME II. eta III. Faseak):

Kasu honetan, etxebizitza eta biztanle guztiak proportzionalki banatzen dira eraikinean kokaturako errezeptore bakoitzean.

Hau izan zen IV. fasearen aurreko hiriko ZME-tan erabilitako metodoa, eta altueran kalkulaturako biztanleriaren benetako esposizio-emaizak lortzeko eta Donostiako egoera akustikoaren eboluzioaren analisirako erabiltzen da.

9.2.2 Europako adierazleengatik kaltetutako pertsonak: $L_{den} \geq 55dB$ y $L_n \geq 50dB$

Atal honetan $L_{den} \geq 55 dB(A)$ y $L_n \geq 50 dB(A)$ mailengatik kaltetutako aglomerazioaren biztanleria kalkulatzetik lortutako emaitzak aurkezten dira. Hauek Europak Zarata-Mapa Estrategikoen IV: fasean aglomerazioetarako ezarritako zehaztapenak jarraituz lortu dira, hau da, IV. faseko ZME-ren 4m-ko altuerako ebaluazioan kaltetutako biztanleriaren kalkulua egin dela, honetarako CNOSSOS-EU metodoa erabiliz. Emaitzak hurrengo taulan aurkezten dira, aurreko ZME-n emaitzekin alderatu ezin direlarik, ebaluaziorako ezarritako aldaketa dela eta.

Donostiako aglomerazioan 4m-tara kaltetutako biztanleriaren emaitzak Biztanleriaren ebaluaziorako metodoa: CNOSSOS-EU

Europako adierazleak	GUZTIZKO pertsonak	GUZTIZKO ehunekoa
$L_{den} \geq 55 dB(A)$	158.482	87,8%
$L_n \geq 50 dB(A)$	129.437	71,7%

9.2.3 Beste adierazle batzuenatik kaltetutako pertsonak

A) Espainiako araudiak eskatutako adierazle gehigarriak:

- L_d eta $L_e > 65$ dB(A) eta $L_n > 55$ dB(A) adierazleak

Aurrekoen irizpide berdinekin ezartzen dira, baina L_d eta L_e adierazleentarako, Espainiako kalitate-helburuak baitira, baina Europak eskatzen ez dituenak. Beraz, L_d eta L_e adierazleentarako eta bizitegi-lurzorurako (65 dB(A) bi adierazleentarako) kalitate akustikoko helburuetatik (KAH) gaineko mailengatik kaltetutako biztanleria irudikatzen dute.

Gehigarri gisa, gaualdirako eta bizitegi-lurzorurako ($L_n = 55$ dB(A)) ezarritako kalitate akustikoko helburuen (KAH) gaineko mailengatik kaltetutako biztanleria ere aurkezten da.

Adierazle hauek 4m-ko altuerako ebaluazioan lortutako emaitzetan CNOSSOS-EU metodoa aplikatuz lortzen dira, baina bakarrik 15/2005 ED-aren arabera mugatutako aglomerazioaren esparrurako. Kaltetutako biztanleriaren ebaluazio-metodoaren aldaketak aurreko ZME-en emaitzekin alderatu ezin izatea eragiten du.

Donostiako aglomerazioan 4m-tara kaltetutako biztanleriaren emaitzak. Biztanleriaren ebaluaziorako metodoa: CNOSSOS-EU

Estatuko adierazleak	GUZTIZKO pertsonak	GUZTIZKO ehunekoa
$L_d > 65$ dB(A)	35.318	19,6%
$L_e > 65$ dB(A)	27.925	15,5%
$L_n > 55$ dB(A)	51.894	28,7%

B) Zarataren udalerrri-kudeaketarako adierazleak

Adierazle hauek udalerrri osoko afekzioari egiten diote erreferentzia, eta ez soilik aglomerazioko afekzioari. Gainera, biztanleriaren kalkulua VBEB metodoaren bidez kalkulatzen da, hau da, fatxadetan errezeptoreen banaketa proportzionala kontuan hartuz eta, aurreko ZME-tan aplikatutako metodoa izanenez, emaitzak udalerrriaren zarataren ebaluazioa neurtzea ahalbidetuko dute.

Hurrengo bi hauek hartu dira kontuan:

- **B8 adierazlea:** Bizitegi-lurzorurako ezarritako kalitate-akustikoko helburuen (KAH) gaineko mailengatik kaltetutako biztanleria aurkezten du, 4 metroko altueran lortutako emaitzei VBEB metodoa aplikatuz, Donostiako aurreko zarata-mapen ebaluazioan erabilitako metodoa izan delarik.

- ILGR adierazlea:** Zarata Kudeatzeko Tokiko Adierazlea, bizitegi-lurzorurako ezarritako kalitate-akustikoko helburuen (KAH) gaineko mailengatik kaltetutako biztanleria aurkezten du, baina kasu honetan eraikinen altuera ezberdinetan lortutako emaitzei aplikatu zaie VBEB metodoa, modu honetan udalerriaren errealitatearen emaitza adierazgarriagoak eskainiz. Adierazle hau Donostiako aurreko ZME guztietan erabili izan da.

DONOSTIAN ZARATA KUDEATZEKO ADIERAZLEAK

Udalerri osoan kaltetutako biztanleriaren emaitzak.
Biztanleriaren ebaluazio-metodoa: VBEB

DONOSTIAKO ADIERAZLEAK	ZARATA-FOKUA	Biztanle-kopurua			Biztanle %		
		$L_d > 65 \text{ dB(A)}$	$L_e > 65 \text{ dB(A)}$	$L_n > 55 \text{ dB(A)}$	$L_d > 65 \text{ dB(A)}$	$L_e > 65 \text{ dB(A)}$	$L_n > 55 \text{ dB(A)}$
4m-ra kaltetutako biztanleria: B8	KALEEN TRAFIKOA	18.459	13.350	27.673	9,8%	7,1%	14,7%
	ERREPIDEEN TRAFIKOA	370	131	836	0,2%	0,1%	0,4%
	TRENBIDE-TRAFIKOA	227	644	413	0,1%	0,3%	0,2%
	INDUSTRIA	0	0	0	0%	0%	0%
	GUZTIRA	20.062	15.293	30.674	10,6%	8,1%	16,3%
Altueran kaltetutako biztanleria: ILGR	KALEEN TRAFIKOA	10.208	5.924	17.703	5,4%	3,1%	9,4%
	ERREPIDEEN TRAFIKOA	673	241	1.429	0,4%	0,1%	0,8%
	TRENBIDE-TRAFIKOA	104	646	331	0,1%	0,3%	0,2%
	INDUSTRIA	0	0	1	0%	0%	0%
	GUZTIRA	12.412	8.277	22.448	6,6%	4,4%	11,9%

OHARRA: Donostiako biztanleria: 188.743 pertsona.

Alderaketa honetatik hainbat ondorio ateratzen ditugu:

- CNOSSOS-EU metodoarekin 4 metrotako altueran egindako ebaluazioaren emaitzak VBEB metodoarekin lortutako emaitzak baino %75 batean handiagoak dira, azken hau aurreko ZME-tan erabili dena izanda.
- Biztanleriaren ebaluaziorako VBEB metodoa erabiliz, eraikinaren altuera guztietan kalkulaturako afekzioa 4 metroko altueran lortutakoa baino murriztagoa da. Murrizketa hau nabarmenagoa da kaleen trafikoa aztertzen bada, non kaltetutako biztanleria %14,7 batetik %9,4 batera pasatzen den. Hala ere, errepideetan kontrakoa pasatzen da, altuera guztietarako afekzioa gora egiten baitu 4m-ko afekzioarekiko, errepide batzuen bere inguruko eraikinenekiko kota dela eta.
- Gaua da eguneko aldirik kaltegarriena kasu guztietan, dagokion KAH-en gaineko mailak jasaten dituzten pertsona-kopurua handiena baitu.

Ingurumen-administrazio ezberdinek eska dezaketen informazioa alde batera utzita, Donostiako udalerriaren ingurumen-zarataren kudeaketaren helburuak VBEB metodoarekin altueran kalkulaturako kaltetutako biztanleriaren ebaluazioa eskainitako emaitza izango da erreferentziatza hartuko duena, adierazgarriena izateagatik eta etorkizunean hirian gertatzen diren aldaketak aztertzeko hobeto doitzen dena izateagatik.

Beraz, zarataren kudeaketarako funtsezko erreferentzia izango diren ZME-ren emaitzak ILGR adierazlearekin lortutakoak izango dira:

ZME 2022 - ILGR Donostia/San Sebastián	$L_d > 65$ dB(A)	$L_e > 65$ dB(A)	$L_n > 55$ dB(A)
Bizitegi-eremuko KAH-en gainera mailengatik kaltetutako biztanleriaren ehunekoa	%6,6	%4,4	%11,9

Lortutako emaitzak aztertuz, hurrengoa ondorioztatzen da:

- Kaleen bide-trafikoa da biztanlerian eragin handiena duena, eta honi errepideen trafikoa eta trenbide-trafikoa jarraitzen diote, baina maila askoz murriztago batean.
- Industria-zaratari dagokionez, ez du ia eraginik Donostiako biztanlerian.

Gehigarri gisa, gaua (L_n adierazlea) eguneko aldirik kaltegarriena denez, hurrengo taulan ataribalio ezberdinetara esposaturako biztanleria aurkezten da, fatxaden altuera guztietara lortutako emaitzetatik abiatuta.

ZME 2022 - ILGR Donostia/San Sebastián	$L_n > 50$ dB(A)	$L_n > 55$ dB(A)	$L_n > 60$ dB(A)	$L_n > 65$ dB(A)
Zarata-maila ezberdinengatik gaudian kaltetutako biztanleriaren ehunekoa	%38,7	%11,9	%0,5	%0*

(*): Kaltetutako biztanleria badago, baina ez da %0,1 era heltzen.

Emaitza horiekin ondorioztatzen da Donostiako biztanleriaren % 60 inguruk eremu lasaietako berezko zarata-mailak dituela, $L_n \leq 50$ dB (A), hau da, bizitegi-eremuetarako ezarritako kalitate akustikoko helburuak baino 5 dB (A) txikiagoak (55 dB (A) gauez). Bestalde, oraindik ere % 0,5 batek gainditzen ditu KAH-ak 5 dB (A) baino gehiagotan, eta pertsonaren batek (ez da biztanleria osoaren % 0,1 era iristen) 10 dB (A) baino gehiagotan gainditzen ditu, eta horiek lehentasunezko helburu izan behar dute SIHEP 2024rako.

C) Afekzio akustikoaren bilakaera Donostian

ILGR adierazlearekin lortutako emaitzei esker, zaratarekiko esposizioak Donostian izan duen bilakaera neur daiteke, egindako Zarata-Mapen emaitzak alderatuz. Emaitza horiek hurrengo taulan laburbiltzen dira, ILGR adierazlearentzat (altuera guztietan), zarata kudeatzeko erreferentzia dena.

ILGR adierazlea.

INGURUMEN-ZARATA FOKUAK	Biztanleak $L_n > 55$			% Populazioa $L_n > 55$		
	2011	2017	2022	2011	2017	2022
KALEAK	40.064	11.813	17.703	22	7	9
ERREPIDEAK	4.340	1.657	1.429	2	1	1
TRENBIDEA	3.353	550	331	2	0	
INDUSTRIA	1	1	1	0	0	
GUZTIRA	51.244	14.545	22.448	28	8	12

Populazioak ingurumen-zaratarekiko duen esposizioaren emaitzak, egindako Zarata-Mapetan.

Emaitzek erakusten dute eragina handitu egin dela aurreko Zarata-Mapekin alderatuta, eta horrek joera-aldaketa bat ezartzen du, zein arrazoen desberdinen batura baten ondorio izan daitekeen eta ebaluazioan zehaztasuna handitzeko beharra justifikatzen duen, inguruneke zarata ebaluatzeko kalkulu-metodoaren aldaketak dakartzan aukerak aprobetxatuz.

9.3 Identifikatutako arazoaren deskribapena eta hobetu beharreko egoerak

Udalerrian zarata-mailak murrizteko beharrezkoak diren hobekuntzei buruzko ondorioak atera ahal izateko, beharrezkoa da Zarata-Mapan (ZME) egindako egoeraren ebaluazioari erreparatzea, arreta handiagoa behar duten arazoak eta egoerak identifikatuz eta hobetzeko proposamen bat eginez.

9.3.1 Gatazka-guneen identifikazioa

Los mapas de conflicto son una forma de integrar la información que recoge la zonificación acústica en cuanto a OCA aplicables a cada área, con los resultados obtenidos en los mapas de ruido a 4 m de altura sobre el terreno. Así se cuantifica el incumplimiento de los objetivos aplicables a cada zona del municipio en función de la zonificación acústica.

Gatazka-mapak eremu bakoitzean aplika daitezkeen KAHei dagokienez zonifikazio akustikoa jasotzen duen informazioa integratzeko modu bat dira, bertatik 4 metroko altueran dauden zarata-mapetan lortutako emaitzekin. Horrela, zonifikazio akustikoaren arabera udalerriko zona bakoitzari aplikatu beharreko helburuak ez direla bete kuantifikatzen da.

Gainera, gatazka-mapa horiek fatxadako gatazka-mapekin osatzen dira, hiriko zaratarekiko sentikorrek diren eraikinen fatxada bakoitzean dagoen gatazka erakusten dutenak.

Azpimarratu behar da kalitate akustikoaren helburuek guztizko ingurumen-zarata egiten diotela erreferentzia, hau da, isurketa-foku guztiak batera kontuan hartuta.

Mapa horiekin lortutako emaitzei dagokienez, honako gatazka hauek nabarmendu behar dira:

- Gehien kaltetutako eraikinei dagokienez:
 - o Gatazka handienak, trafikoaren eraginez, eraikinak oso hurbil dituzten hiriko sarrera eta irteera errepidetan aurkitzen dira, Avda. Tolosa, Mirakruz-Ategorrieta-Alcalde Eloegi, Carlos I.a eta Frantzia pasealekuan. Era berean, hiriguneko zenbait kaleren inguruan trafiko handia dago, hala nola Avda. Nafarroa eta Kolon Grosen, Zubieta, Urbieta eta San Martin Erdialdean, Bartzelona Loiolako Erriberan eta Otxoki pasealekua Intxaurrondon.
 - o Bide-azpiegiturek (errepideek) gatazka handiak sortzen dituzte, nahiz eta, oro har, noizean behin gertatzen diren, GI-20 errepidetik gertu, Pasaiako Porturako sarreran, Intxaurrondon, Aieten eta Loiolako Erriberetan. Era berean, GI-40 eta AP-15 errepideen ondoan, oso kaltetuta dauden eraikin isolatuak daude.
 - o Trenbide-azpiegiturei dagokienez, gatazka batzuk ikusten dira Groseko bihurgunean, Zubiaurre pasealekuan eta Herrera inguruan, ADIFen linearen ondorioz; ETSren linearen ondorioz, berriz, gatazka txikiren bat ikusten da Errondo pasealekuan.
- Udalak parke eta lorategi gisa katalogatutako espazio publikoei dagokienez, honako hau ikusi da:
 - o Dimentsio txikiko espazioek Erdialdeko eta Amarako eremuetako daudenek, ia azalera osoan gatazka dauzkate. Horietatik, Araba parkearen eragin handia nabarmendu behar da, erdigunera sartzeko bide nagusietako baten ondoan baitago, hala nola Gernikako Arbolaren eta Eustasio Amilibia parkearen ondoan. Ezaugarri horiek dituzten beste gunek batzuk Santa Katalina parkea, Zaragoza plaza, Frantzia pasealekua edo Erriberako Oroimenaren Lorategia dira.
 - o Azalera handiagoko beste espazio batzuetan, afekzioa, hiri-bideetatik hurbilen dauden eremuetan bakarrik aurki daiteke, nahiz eta horietako askok, zarata-maila baxuak dituzten. Honelako espazioen adibide dira Cristina-enea parkea, Miramar


Jauregiko parkea, Alderdieder, Ametzagaña, Ondarretako Lorategiak, Otxoki edo Puiu.

- o Azkenik, badaude espazio batzuk non ez den inolako afekziorik edo gatazkarik ikusten, hala nola, Aiete, Miramon-Zorroaga, Urgull, Ulia, Larratxo eta Arriaga parkeetan.


9.3.2 Eremu lasaien identifikazioa

